

BI ARGITALPEN BERRI EUSKARAZ

Zabalik, egunkari itxurako astekaria

Joan den azaroaren 27az gero aukera bat gehiago dugu irakurleek. Bere izena, *Zabalik* da, eta Donostian argitaratzen den kazeta eiteko astekaria da. Correo Taldearen produktu izanagatik, ez dago loturik Talde horrek Autonomia Erkidegoan argitaratzen dituen bi egunkariei, ez Diario Vascori, ez El Correori.

Nerea Azurmendi kazetaria da astekari berri honen erredaktore-buru, eta Marisol Garmendia eta Joseba Lezeta ageri dira sailletako arduradun. Ohiko kolaboratzaileen zerrendan dira, besteak beste, Ainhoa Lodoso, Xabier Azkargorta, Iker Estala, eta José Luis Padrón.

Astekari honek 64 orrialde ditu, eta kolorez dator azalean zein erdiko orrialdeetan. Ohiko egunkariei dituzten sailak ditu *Zabalik*-ek ere: gizartea, politika, ekonomia, kirolak, kultura, nazioartea..., nahiz eta sakonago landu ohi diren gaiok. Horra, adibidez, Martin Ugaldere eta Joseba Arregiri egindako elkar hizketak, edo Ereму Urriko Hizkuntzen Nazioarteko Biltzarrari eta Durangoko Azokari buruzko erreportajeak.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 80 98
e-posta: M-Meaurio@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....


Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

**Behinola, haur eta gazte literatura aldizkaria**

Kalean da *Behinola*, haur eta gazte literaturaren kritika eta azterketarako aldizkaria. Galtzagorri Elkartearen ekimenez argitaratzen da *Behinola*, eta gazteei zuzenduriko lanak gero eta gehiago direnez, literatur kritika bultzatu asmo du.

Lehen alean zinez aipagarri dira Jokin Mitxelena ilustratzailearen marrazkien kalitatea, eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Haur Literatura irakasle Teresa Colomer-ekin elkar hizketa. Gainera, Edurne Uria UPV-EHuko Arte Ederretako irakaslearen idazlana, non euskarazko haur literaturako ilustrazioaren historia egiten baitu; edo Xabier Etxaniz Erle irakaslearen artikulua, euskarazko haur literaturaren historiaren ikuspegi berezia eskaintzen baitu, hamar emakumeren adibide harturik. Manu Lopez Gaseni irakasle eta idazlea da *Behinolaren* koordinatzaile. Udaberrian argitaratuko da hurrengo alea.

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

- 1 • Euskaltzaindiaren informatizazioa
- 2 • Jose Morales Belda, erusieratik euskarara itzultzaile
• Laburrak: Expolangues 2000
Hizkuntzaren Soziologia
• Agenda: 2001, Hizkuntzaren urtea

- 3 • Office 2000
• Euskara eta Internet

- 4 • Argitalpen berriak euskaraz:
Zabalik
Behinola

EUSKALTZAINDIAREN INFORMATIZAZIOA

Euskararen normalkuntzaren bidean

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek betidanik eskaini izan diote dirulaguntza Euskaltzaindiari, euskarari dagozkionetan erakunde aholku emaile ofiziala baita. Ondorioz, aipatu Herri Agintek eta Euskaltzaindiak lehen hitzarmen-markoa sinatu zuten 1989an, sei urterako. Helburua, finantziarioa zein laguntza materiala bideratzeko oinarritzko egiturak zehaztea zen, erakundeak geroan abiaraziko dituen ekimenak ziurtatzeko. 1995ean, erakunde horiek beste hitzarmen-marko bat sinatu zuten, 5 urterako. Gainera, hitzarmen-markoari protokolo eranskinak sinatu ohi dira urtero, aldian-aldian Euskaltzaindiak egin behar dituen lanak zehaztearren.

Urte hauetan egin izan den elkarlanaren ondorio dira orain arte sortu diren euskararen corpusak. Besteak beste, Orotariko Euskal Hiztegia, Hiztegi Batua, eta Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistemakoa. Lan hauek denak, jakina, funtsezkoak dira Euskararen normalizazioaren bidean.

Informatika alorrean izan diren azken aldiko aurrerapenak tarteko, 1998an bertan Orotariko Euskal Hiztegiaren corpusaren migrazioa -euskari berriago batera-, egiteko beharra ikusi zen. Berehala, Euskaltzaindiaren egoitza denak azpiegitura informatiko egokiaz hornitzeko beharra sortu zen. Beraz, erakundea informatizatzeko zenbait azkerketa egin ondoren, egin



EUSKALTZAINDIAREN INFORMATIZAZIO SISTEMA BERRIA

beharreko lan horren oinarriak bildu ziren 1999ko hitzarmenean. Lanak burutzeko epea bi urtekoa da: 1999ko martxoan hasi ziren, eta 2000. urteko abenduan bukatzea espero da. Inbertsioaren aurreikuspena 85.526.315 pezeta-koa da; Eusko Jaurlaritzak euskararen azpiegiturak sustatzeko izendaturiko diru kopuruak gehitu direnez, oso-osorik finantzatuko da Euskaltzaindiaren informatizazio prozesua. Gainera, urte bat gutxiago beharko da lanerako, hiru urte aurrekusi baitziren lehenengo.

Honakoa izango da Herri Aginteen diru-ekarpena:

	1999	2000
Eusko Jaurlaritza	43.800.000	28.881.000
Nafarroako Gobernua	1.680.575	1.680.575
Arabako Foru Aldundia	732.387	732.387
Bizkaiko Foru Aldundia	2.665.975	2.665.975
Gipuzkoako Foru Aldundia	1.680.575	1.680.575

Hortaz, Euskaltzaindiaren informatizazioak, honako berrikuntzak ekarriko ditu: oinarritzko hornikuntza erosi eta instalatzea (zerbitzaileak, Pcak, eskuko ordenadoreak, inprimagailuak, eskanerra, grabagailua, software-aren lizentziak, elikatze etengabeko sistemak, komunikazio routerra), egoitzen kableztatzea, erabiltzaileen prestakuntza, datuen integrazio eta bihurtzea, analisia eta diseinua eta lehentasunezko aplikazioen implementazioa (OEHren migrazioa, Hiztegi Batua, argitalpenen kudeaketa, Intraneten ezarpena, datu baseak, web orrialdea, Artxibategi Kurrikularraren datu basea).

Euskaltzaindiaren informatizazioak asko erraztuko informazioaren koordinazioa, trukea eta erabilera. Hori ez ezik, euskararen normalizazioari ere eurrez lagunduko dio, hemendik atzera zuzen-zuzenean kontsultatu ahal izango baitira Euskaltzaindiaren corpusak, arauak zein bestelako lanak; era berean, zuzen-zuzenean egin ahaliko ditugu geure galderak.

laburak

EXPOLANGUES 2000



Hizkuntzen, Kulturen eta Nazioarteko Trukeen 18. Aretoa egingo da aurten Parisen, otsailaren 23tik 27ra. Hizkuntzen azoka hau lehen mailakoa da bere arloan, eta erreferentzia nahitaezkoa da mundu osoan. Beren hizkuntza eta kultura sustatu nahi duten herriek erakusleho paregabea dute Expolangues. Azoka honek urtero arreta berezia

eskaintzen dio herrialde bati. Aurten, Australia izango da Parisko azokak nabarmenaraziko duen herria.

HIZKUNTZEN SOZIOLOGIA

Hizkuntzaren Soziologiaren ibilbidea EHUko Soziologia saileko irakasle batzuek Soziologia lizentziaturako plan berrituan sartzeko proposatu zuten iaz eta aurten abiarazi dute. Lizentziaturako azken kurtsoan hautazko ikasgaien artean ibilbide ezberdinak daude, eta horietarik bat dugu Hizkuntzaren Soziologia.

Zientzia honek badu zeresanik Soziolinguistika esparuan, bai teoriko bai metodologikoki edo ikuspuntu aplikatu batetik. Garrantzi handiko ere izan liteke, soziolinguistikari buruzko formazio eta dibulgazioak asko lagun baitezakete euskalgintzan aurrera egin ahal izateko.

agenda

2001
HIZKUNTZEN URTEA

Europako Batzordeak "Hizkuntzen Urtea" izendatu du 2001. urtea, hizkuntz aniztasuna Europako ondarearen elementurik funtsezkoenetako bat dela eta izango dela adierazi nahian.

Hizkuntzen Urtearen helburuak bat baino gehiago dira. Batetik, hizkuntz aniztasunak Europako Batasunaren barruan dakarren aberastasunaz europarrak jabearaztea, eta, bestetik, hizkuntzen ikasketak bizitza osoan bultzatzea, eta hizkuntzen ikas-irakaskuntzaren gaineko informazio denak bildu eta zabaltzea.

JOSE MORALES BELDA

Errusieratik euskarara itzultzaile



Jose Morales Belda (Bilbo, 1960) da Ivan Sergeievitx Turgenev-en *Aita-semeak* nobelaren itzultzaile. Duela gutxi argitaratu da lan hau *Literatura Unibertsala* bildumaren barruan, beste bi lanekin batera: John Dos Passos-en *Manhattan Transfer*, Marcelo eta Iñaxio López de Aranak itzulia, eta *Negu batez Mallorcan*, George Sand-ena, Miren Arratibelek eta Aintzane Atelak itzuli dutena.

Aita-semeak ez da Jose Morales Beldak bilduma honetan itzuli duen lehen titulua. Lehen ere Maxim Gorki-ren *Ama*, Aleksandr Sergeievitx Pushkin-en *Kapitainaren alaba* eta *Saltan erregea*, Nikolai Vasilievitx Gogol-en *Arima hilak*, eta Mikhail Juriievitx Lermontov-en *Gure garaiko heroia* itzuliak ditu. Hain zuzen, 1997ko Itzulpengintzaren Euskadi Literatura Saria irabazi zuen azken lan horregatik Morales Beldak. Itzulpen denak ere errusieratik egin ditu. "Beti gustatu izan zait Errusiako literatura. Institutuan ikasle nintzenetik Dostoiievsky irakurri nuen eta ikaragarri gustatu zitzaidan, ez literatura bakarrik, baita liburu haietan zegoen kultura eta giroa ere. Geroago, sakondu egin nituen irakurketa haiek, Errusiako kulturaz maitemindu nintzen eta errusiera ikasten hasi nintzen Bilbon. Noiz edo noiz Errusiar joatea nuen asmo, eta bertakoekin errusieraz hitzegitea. Hango idazleak beren jatorrizko hizkuntzan irakurri ere nahi nituen". Bilbon ikasi zuen errusiera, beraz, Euskadi-URSS Elkartearen babesean, elkartearekin zegoen arte Perestroika garaian. Orduan, Bilboko Hizkuntz Eskolan segitu zuen ikasten.

Jose Moralesek ez du uste errusieratik itzultzeak zailtasun berezirik duenik. Euskara hizkuntza isolatua izateak, era berean zailtzen du zein nahi hizkuntzatatik itzultzea. "Euskarak ez du gainerako hizkuntzen antzik eta, beraz, errusieratik euskarara itzultzea portugesez itzultzea bezain zail da. Zera gertatzen da, euskaldun gehienak elebidun garenaz, errazago zaigula portugesa edo italiara ikastea. Gaztelania jakinda, adibidez, frantsesa ikastea askoz errazago da errusiera ikastea baino. Bestalde, kontuan izan behar da Errusiako kultura guztiz ezezagun zaigula, eta, ondorioz, ahalegin handiago eskatzen digula. Distantzia fisiko oso garrantzitsua da, kasu honetan".

Itzultzaile honen iritziz, errusieratik euskaratu dituen lanak irakurle saiatuenei zuzendurik daude. "Ez dakit gazteek interesik izango duten lan hauek irakurtzeko. Dena dela, merezi du literatura unibertsaleko klasikoak euskaraz ere edukitzea, euskaraz irakurri nahi dituenak aukera izan dezan. Aukera izatea da garrantzizko".

OFFICE 2000 ETA BESTE SOFTWARE BATZUK EUSKARAZ Euskara Biziberritzeko Planak lehentasunezkoa jo du euskararen presentzia informazio eta komunikazioaren teknologia berrietan

Dendetan da jadanik Microsoft Office informatika sorta. Bulegotika sorta honek lau aplikazio eskaintzen ditu: Word 2000, Excel 2000, Outlook 2000 eta Power Point (azken hau gaztelaniaz), gehi euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko zuzentzaile ortografikoak. Gainera, lau aplikazio hauek biltzen dituen CD-ROMari Internet Explorer 5 nabigatzailea eta Outlook Express 5 gaineratu dizkiote. (Azken honi dagokionez, Interneteko ondoko helbidean dugu eskuera: www.microsoft.com/msdownload/iebuild/ie5win32/eu/ie5win32.htm)

Informatika-sorta honen euskarazko bertsioa Eusko Jaurlaritzak eta Microsoft-Corporation-ek 1998ko maiatzaren 8an Gasteizen izenpeturiko hitzarmenean aurrekusi zen. Hitzarmen horri esker euskaratu ziren eta merkaturatu jarri Windows 98 sistema eragilea eta Internet Explorer 4.0.

Euskaraz ekoitzi den software hau beste urrats bat da euskararen normalizazio prozesuan. Gaur egun, eta normali-

zazioa helburu, sistema eragilea eta oinarriko softwarea euskaraz izateak gure hizkuntzarentzat garrantzi handia du, eta, ondorioz, tresna hauek erabilera arruntekoak izateaz gain teknologia berrien munduan sartzeko aukera eskaintzen dute. Zabalkunde handiko produktuen lokalizazioa, berez, lehentsaunezko zat jotzen da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian. Plan honetan euskararen normalizazioa eskuratzen jarraitzeko gure hizkuntzak dagoen 10 urteotan jorratu, indartu eta garatu behar dituen arlo estrategikoak zehazten dira. Horietako bat, "Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak" dira.

Administrazioek (Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EUDEL, Euskal Udalen Elkarteak) ordaindu dute Office 2000ren euskarazko bertsioa. Lokalizazioak 232 milioi pezeta balio izan du, horietatik %66 Eusko Jaurlaritzak ordaindu du, eta beste %34 hiru aldundien artean pagatu dute. Elhuyar-ek egin ditu lokalizazioarako itzulpen lanak.

Bertsio-berritze
herezia

Microsoft Word

Microsoft Excel

Microsoft Outlook

Microsoft PowerPoint
(Gaztelaniaz)

Bulegorako programa-multzoa

Euskaraz lan egiteko beste zenbait informatika tresna

Munduan zehar 32 hizkuntzatan ekoitzi da Windows 98 sistema eragilea eta Office 2000 bulegotika-sorta. Informatikaren erabiltzaileentzat premia bihurtu da oinarriko software informatikoa bere hizkuntzetan izatea, eta gehiago tresna informatikoak eguneroko lanabes bilakatu diren honetan. Informatika lan munduan, hezkuntzan, etxean eta aisialdian sartu zaigu eta tresna horiek zuzentzen dituzten programak euskaraz izatea behar bilakatu da.

Hizkuntza Politikarako Sailordetza ere hasi da euskaraz lan egin nahi duten erabiltzaileei zenbait tresna eskaintzen Interneten. Bi hauek dira adibide:

- Xuxen, euskararen zuzentzaile ortografikoa, 2.1. bertsioa. Donostiako Informatika Fakultateko IXA taldeak Hizkia enpresa eta UZEIren laguntzaz garatutako zuzentzailea da. Euskaltzaindiak arauak eman ahala eta lexiko berria sartu ahala eguneratzen da. Doan eskura daiteke honako helbidean: www.euskadi.net/euskara_hizt
- Elhuyar hiztegia, Euskara-Gaztelania/ Castellano-Vasco: eguneratu berri da eta, oraintxe, 87.000 sarrera, 123.000 adiera eta 19.000 azpisarrera ditu. Hiztegia eguneratuz joango da eta laster bikoiztu egingo da sarrera kopurua. Hiztegia ezin da deskargatu, bai ordea kontsultatu helbide honetan: www.euskadi.net/hiztegia eta, euskadi.net horretan bertan, Euskara atalean, euskara lantzeko tresna gehiago jarriko dira aurki.